

Kartzela eta gizarte bazterketa

Desbardintasun eta axolagabetasunak ezkututzen dabena

Espainiar Konstituzinoaren 25.2 artikulua

“Askatasuna kentzea dakarren zigorrak eta segurtasun-neurrien xedea berreziketa eta gizarteratzea izango da”

Kartzela-zigorrek izan beharko leukien egiteko hezitzaile eta gizarteratzailearen inguruan konstituzinoan jasoten dan baieztapen honek zein espainiar legerian aurkituko dogun beste hainbatek ez dau inongo zerikusirik benetan gertatzen danagaz eta kartzelek daukien ekitekoagaz. Hain zuzen be, 1996ko Espetxe-araudiak berak hainbat aukera aurreikusten eta eskaintzen dau presoek gizarteratze prozesuetan parte hartu daien. Baina, errealitatera eroatean, zalitasunak dira nagusi, arau horreen ezarpen murriztailea dala-eta.

Preso gehien jatorria gizarte bazterketa larriz jantzitako egoerak izaten dira eta egindako delituek kausa-efektu lotura zuzena izaten dabe egoera horri dagokionez. Ez dagoz kartzelan delitu larriak egiteagaitik, indarkeria erabilteagaitik baino. Hain zuzen be, karteletan dagozan presoek %15a bakarrik dago han giza hilketagaitik, sexu askatasunaren edo ordena publikoaren aurkako delituengaitik (tartean, terrorismo delituak).

Ehuneko 65etik gora, ondarearen (lapurretak) edo osasun publikoaren (droga-trafikoak) aurkako delituak egiteagaitik dago kartzelan.

Ehuneko honek gora egiten dau emakumeen artean: %80 baino gehiago dira ondarearen edo osasun publikoaren aurkako delituak egin dabezanak, delinkuentzia funtzionaleko suposizio bilakatuz. Aurretiko bazterketa-egoerari lotuta dago eta gizarte mailan agertzen dauan ahulezia maila oso altua da. Espainiako karteletan dagozan presoek %10 baino ez dira emakumeak eta, ondorioz, leku eskasagotan dagoz, urrunago senideengandik eta baldintza txarragotan bizi dira.

ESPETXEETAN, ASKOTARIKO GIZARTE BAZTERKETA JASATEN DABEN PERTSONAK DAGOZ

Estatuan, espetxean dagozan pertsonen kopuruak gorakada handia izan dau azken hamarkada bietan: 2000ean, 45.000 lagun egoan kartzelan eta 58.500etik gora ziran 2019ko abenduan.

Preso gehienak, bazterketazko prozesu bihurriaren azken aldia bizi dabe espetxean, hain zuzen be, hainbat eragile tartean dala: mendekotasunak, buruko gaixotasunek eragindako arazoak, bitarteko pertsonalen falta, heziketa eskasa edo heziketarik eza, lanean esperientziarik ez izatea, eredurik eta egituratutako familia eremurik ez izatea, diru-sarrerarik ez eukitea...

Gainera, esanguratsua da etorkinen kopurua be (%30); arlo administratiboan legez kontra egonda, bazterkeria jasan eta delitura jotzen dabe. Etorkinei dagokienez, aipagarria da, gainera, emakume presoek ahulezia eta buruko gaixotasunez eta gaixotasun fisikoez jota dagozanen kopurua.

Kartzelan emoten dan denporak ez dau gizarteratze prozesuei ekiteko edo presoak delitua egitera bultzatu eben arrazoiak aztertze eta zuzentze balio eta, horren orde, pertsona horreen egoerak okerrera egiten dau eta bazterketa areagotu egiten da.

Europar Batzordearen datuen arabera, Espainia, biztanleriari dagokionez preso gehien daben herrialdeetako bat da.

Espainian, 2020aren hasieran, 15.188 preso atzerritar egoan, hau da, %28,1, urte horretan Estatu espainiarrean egoan etorkinen ehunekoaren (%12,9) bikoitza.

Espainia da emakume atzerritar preso gehien (1.230) dauan Europako herrialdea, alde handia ataraten deustalarik bigarren postuan dagoan Italiari (967).

2019an, 49 lagunek euren buruaz beste egin eben Espainiako espetxeetan.

GUZURRA VS EGIA

Espainian, zigor-sistema bigun eta onbera samarra da delitugileakaz eta zigorraren zati txiki bat baino ez da beteten

- Espainiako espetxeetako egoerari dagokionez, **preso sartuta dagozan pertsonen kopurua** Mendebaldeko Europako gainerako estatuetakoa baino altuagoa da (gitxi gora-behera, 129 preso 100.000 biztanleko, Europar batasuneko herrialdeetan batez besteko hori 117 danean).
- Datu hori, are eta deigarriago bihurtzen da, **krimen-kopurua** (1.000 biztanleko delitu-kopurua) Europako herrialdeetako batez bestekoaren azpitik dagoala kontuan hartzen badugu. Azken urteetan, 1.000 biztanleko 45 delitu inguru zenbatzen dira. Hau da, EBeko batez bestekoagaz alderatuz, Espainian krimen-kopurua txikiagoa da, baina preso gehiago dago.
- **Espetxeko egonaldia**ri dagokionez, Espainian Batasun Europarreko batez bestekoaren gainetik dago, hau da, lagun gehiago sartzen da espetxean eta luzaroago egoten da (batez beste, 22 hilebete eta gainerako herrialdeetan, 10).

Pertsona birgizarteratzea da espetxearen helburu nagusia

- Presondegietako **langileen %85a zaintza eta segurtasunaz** arduratzen diran funtzionarioez osatuta dago eta gitxiengoak dira presoaren tratamenduaz arduratzen diran langile teknikoak.

PROPOSAMENAK

- **Zigor-sistema**, bizarte bazterketa jasaten daben pertsonen egindako delituakaz **bereziki gogorra** dala eta kartzelak ahulezian dagozan pertsonen beteta dagozala konturatu.
- Errespetuz jokatu eta pertsonen **privatutasunerako dabezan funtsezko eskubideak urratzen dabezan barriak salatu**, komunikabideek sarritan zabaltzen dabezan **izen-buru sentsazionalista eta guzurretan jaustea saihestuz**. Horrek espetxeen eremuan be gizarte eraldaketagaz konprometitzera eta kartzelan dagozan pertsonen egoera agertzera eroan behar gaitu.
- Espetxearen **ordezko neurriak babestearen** garrantziaz jabetu:
 - Espetxeaz gitxiago baliatzea dakarrelako (espetxean errehabilitatzea gaxa dalako, espetxeak mantentzea garestia dalako eta eragin eskasak dabezalako presoengan eta senideengan).
 - Egitarauetan (zaletasunen, buruko gaixotasunen, genero-indarkeriaren, gizarteratzearen, alkartearen onerako lanen... inguruan) parte hartuz, delituaren arrazoiak hobeto aztertu daitekezalako eta horreetan eragin, aldaketei bide emonez, delituetan barriro jaustea gitxituz eta biktimak babestuz.
 - Espetxeratzeak dakarren banantzearen parean, erreparazio, erantzukizun eta alkarte partaidetzarako ikuspuntu barritzailea eransten dabelako.
- **Alkartearen onerako lanak** egiteko eremuak eskaini; 'zigor' hau, gehienetan, larritasun gitxiagoko jokaerei ezartzen jake, esate baterako, bideko segurtasun-arauak urratzeari, genero-indarkeriari, lapurretei eta beste batzuei... lotutako delituei. Jardunbide honek pertsonaren barritzea dakar, zigorra jaso dauanari bere delituagaz apurto edo kaltetu dauanagaitik alkarteari ordaintzeko edo itzultzeko nolabaiteko era eskaintzen deutso. Alde batetik, delitugileei dagokien erantzukizuna eta aldatzeko konpromisoa hartzeko aukera emoten jake, delituan barriro jausteko aukerak gitxituz. Beste alde batetik, balio handiko jarduera da, alkarteak berak ahalbideratzen daualako delitugileen bergizarteratzea eta delituaren arrazoiei heltzea.
- **Gizarte desbardintasuna gitxitzen lagundu, horixe da-eta delitu gehienak prebenitzeko erarik egokiena**: gizarte batasuna bultzatu eta heziketa, lan, ekonomia arloko politikak, etxebizitzari, osasun fisikoari eta buruko osasunari,... lotutako politikak, zaletasunak prebenitzeko eta tratatzeko politikak... sustatuz. Neurri horreek gizarteratzea ahalbideratzen eta sendotzen dabe, aldi berean, krimen-kopurua gitxituz.

ESTEKA INTERESGARRIAK

<http://www.larevistilla.org/>

www.larevistilla.org

<https://www.justizia.eus/gestion-de-penas/>

